

PAIC

PractInComing Programa

Ikasle Bisitariantzako Nazioarteko Praktiken gida

Bilboko Hezkuntza Fakultatea

EHU – Euskal Herriko Unibertsitatea
Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gradua

1. Sarrera

PAIC programa (PractInComing) Bilboko Hezkuntza Fakultateak (EHU) abian jarritako nazioarteko praktiken egitasmo bat da. Nazioarteko ikasle bisitariei aukera ematen die Bizkaiko euskal eskola publikoetan praktikak egiteko, Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako gradu ikasketen barruan.

Nazioartekotzea lehentasun estrategikoa da bai EHUrentzat bai fakultatearentzat. Programa hau prestakuntza eleaniztun baten beharrari erantzuteko sortu da, eta nazioarteko mugikortasunaren esperientzia aberasten du. Gainera, kultura trukea, elkarlaneko ikaskuntza eta nazioarteko ikerketa aliantzak sustatzen ditu.

Ikastetxeetan nazioarteko ikasle-irakasleak egotea balio handiko aukera da bai ikastetxeentzat bat ikasleentzat, kulturarteko ulermena, hezkuntza inklusiboa eta ikaskuntzaren ikuspegi globala sustatzen baititu.

2. Testuingurua

Programa koordinatzen dute elkarrekin Nazioarteko Harremanetarako Dekanordetzak eta Haur eta Lehen Hezkuntzako graduetako Praktiketako Dekanordetzak.

Parte hartzen duten ikastetxeak Bizkaiko Euskal Eskola Publikoaren Sarean sartuta daude. Ikasturtea hasi aurretik, saio informatibo bat egingo da online parte hartzaile guztientzat.

3. Programaren deskribapena

Hiru Practicum daude

Practicuma	Iraupena	Helburu nagusia
Practicum I	6 ECTS	Ikastetxeari behatzea eta ezagutzea. Euskal hezkuntza testuinguruan murgiltzea.
Practicum II	12 ECTS	Ikastetxeari buruzko azterketa sakonagoa, behaketa egituratuak eta gogoeta konparatiboa.
Practicum III	18 ECTS	Irakasleen ikasgelako esku hartzeak diseinatzea, txertatzea eta ebaluatzea.

4. Nork hartzen du parte?

PAIC prozesuan funtsezko lau pertsonak parte hartzen dute:

Hezkuntza Fakultatea	- Nazioarteko Harremanetako eta Praktiketako dekanordeek koordinatzen dute. Ikastetxea eta unibertsitateko tutorea esleitzen dizkio ikasle bakoitzari.
Unibertsitateko tutorea	- Aldian-aldean elkartzen da ikaslearekin, hari laguntzeko eta egin beharreko urratsetan aholkuak emateko. - Lan plana ikastetxeko tutorearekin batera prestatzen du.

	• Harremanetan dago ikastetxeko tutorearekin eta programaren gida helarazten dio. • Ikasleari laguntzen dio amaierako txostena idazten. • Amaierako kalifikazioa sartzen du GAURen, ebaluazio aldi ofizialean. • Practicum II-an: telefono dei bat egiten du ikastetxera jarraipena egiteko. Practicum III-an: aurrez aurreko bisita egiten du ikastetxera ikasleari behatzeko.
□ Ikastetxeko tutorea	• Ikasleari harrera egin eta ikastetxea eta ikasgela aurkezten dizkio. • Lan plana diseinatzen du, unibertsitateko tutorearekin batera. • Ikaslearen eguneroko lana bideratu, babestu eta gainbegiratzen du. • Edozein ezohiko gorabeheraren berri ematen dio unibertsitateari (ez bertaratzeak, ordutegi aldaketak, etab.). • Ebaluazio errubrika bete (A eranskina) eta unibertsitateko tutoreari bidaltzen dio, praktikak amaitzen direnetik astebeteko epean.
Ikaslea	• Garaiz iristen da eta ikastetxeko araudia eta arauak errespetatzen ditu. • Programa ezagutzen du eta hura garatzen laguntzen du. • Eskatutako dokumentu guztiak ezarritako epeetan entregatzen ditu. • Errespetuzko harremanak ditu eskola komunitateko kide guztiekin.

5. Ebaluazioa

Practicum bakoitza gainditzeko, atal GUZTIAK gainditu behar dituzte ikasleek. Azken kalifikazioa honela kalkulatu da:

EBALUATZAILEA	TRESNA	PISUA
Unibertsitateko tutorea	Practicum txostenaren ebaluazio errubrika (B eranskina)	% 50
Ikastetxeko tutorea	Ikastetxeko tutorearen ebaluazio errubrika (A eranskina)	% 50

⚠ Gutxiegi Practicumean

- Ikastetxean justifikatu gabeko bi hutsegite → automatikoki gutxiegi.
- Ikastetxeko tutorearen kalifikazioa 5etik beherakoa (10etik) → automatikoki gutxiegi.
- Errendimendu eskasa, unibertsitateko tutorearen ustez → gutxiegi (ikasleak beste txosten bat aurkeztu beharko du ezohiko deialdian).
- Practicumak «Ez aurkeztua» kalifikazioa jasoko du ikaslea matrikulatuta egonik esleitutako ikastetxera joaten ez bada, baimen eta esleipen (ikastetxeko tutorea eta unibertsitateko tutorea) formalik gabe joaten bada edo amaierako txostena aurkezten ez badu.

6. Harremanetarako

Praktiketako dekanordea
Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Tel.: +34 946 014 666
bhf.practicum.dekanordea@ehu.eus

Nazioarteko Harremanetarako dekanordea
Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Tel.: +34 946 017 564
bhf.internazionala@ehu.eus

7. Zeharkako gaitasunak

PAIC programan, ikasle bisitariak gaitasun hauek garatuko dituzte, bat etorririk EHUren Zeharkako Gaitasunen Katalogoarekin (2019) eta NBEren 2030 Agendarekin:

C1	Iraganeko esperientziaz baliatzea arazoei aurrea hartzeko eta irtenbideak planifikatzeko.
C2	Proiektu pertsonalak eta profesionalak gauzatzea, ikasteko aukerak bilatuta hainbat testuinguruan.
C3	Ikaskuntza garrantzitsuak sortzea, hainbat diziplinetako jakintzak integratuta.
C4	Hizkuntza eta kultura aniztasuna errespetatuko duten ekintzak eta portaerak deskribatzea.
C5	Ikerketa prozesu baten edo ikerketa baten emaitzak partekatzea testuinguru sozial espezifikoekin.
C6	Hobekuntza profesionalerako proposamenak egitea, banaka edo taldeka.
C7	Lankidetzaren, zientziarako eta teknologiarako sarbidearen eta ezagutza zabaltzearen garrantziaz ohartzea.
C8	Tokiko, herrialdeko eta nazioarteko aliantzek garapen jasangarrirako duten garrantziaz sentsibilizatzea.

8. Datuen babesa eta pribatutasuna

Escola komunitateko pertsona guztien pribatutasuna babestea betebeharrak legala eta etikoa da. Ondoren datozen arauak praktikan dauden ikasle guztiei aplikatzen zaizkie eta une oro bete beharrekoak dira.

Datu pertsonalak txostenean

Txostenak, behaketa fitxak edo esku hartze erregistroak idaztean, ez erabili inoiz ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko bestelako langileen benetako izenak. Gezurrezko izenak edo inizialak erabili beti. Praktika aldian sortutako idatzizko dokumentu guztiei aplikatzen zaie.

Argazkiak eta bideo grabazioak

Ikastetxe barruan argazkiak ateratzea edo bideoak grabatzea gai labaina da, eta Espainiako eta Europako legediek arautzen dute. Halakorik egin aurretik, urrats hauek eman behar dira:

- Baimena eskatu ikastetxeko zuzendariari edo koordinatzaileari.
- Agertu daitezkeen adin txikikoen gurasoen edo legezko tutoreen idatzizko baimena eskuratu (ikus beharago dagoen baimen formularioa).
- Irudiak adierazitako xederako (Practicumeko dokumentazioa) soilik erabili eta ez partekatu inoiz publikoki.
- Zalantza izanez gero, ez atera argazkirik eta ez egin grabaketarik.

Aukera posibleak: argazkiak atzetik atera, aurpegiak modu digitalean lausotu edo aurpegiak agertzen ez dituzten ikuspegiak aukeratu.

ARGAZKIAK ATERATZEKO ETA BIDEOAK GRABATZEKO BAIMENAREN FORMULARIOA

Nik, _____, _____(r)en gurasoa edo legezko tutorea naizenak, baimena ematen diot praktikan dagoen _____ ikasleari nire seme-alaba hezkuntza dokumentazioko xedeekin soilik egindako argazkietan edo bideo grabazioetan ateratzeko, PAIC Practicum programaren esparruan. Irudi horiek ez dira inolaz ere argitaratuko, ezta partekatuko ere.

Tokia: _____ Data: _____ Sinadura: _____

Legedi aplikagarria

- Espainiako Konstituzioa, I. titulua, 18. artikulua (oinarrizko eskubideak eta askatasunak).
- 1/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 5ekoa, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzkoa.
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen babes juridikoari buruzkoa (4. artikulua).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Txostenerako ohar garrantzitsua

PAIC programaren barruan aurkeztutako edozein txosten, behaketa fitxa edo esku hartze erregistroan, pertsona guztiak gezurrezko izenekin edo inizialekin aipatu behar dira. Ikaslea arduratuko da baldintza hori betetzeaz edozein dokumentu entregatu aurretik.

PRACTICUM I | 6 ECTS

Helburua

Euskal eskolaren testuinguruan murgiltzea. Euskal hezkuntzaren errealitateari behatzea, ezagutzea eta horri buruz gogoeta egiten hastea.

Zer egingo duzu Practicum I-ean?

- Ikastetxeari behatu: antolaketa, instalazioak, hezkuntza proiektuak eta eguneroko funtzionamendua.
- Ikasgelari behatu: ikaskuntza ingurunea, errutinak, ikasleak eta irakasteko modua.
- Behatutakoa konparatu zure jatorrizko herrialdeko hezkuntza sistemarekin.
- Amaierako txosten bat idatzi ondoren adierazitako egiturari jarraikiz.

Gaitasun espezifikoak

Garatu beharreko gaitasunak
Ikastetxeari, ikastetxeko antolaketari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza praktikoa eskuratzea.
Ikasgelan interakzio eta komunikazio prozesuei behatzea.
Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inplikaturako aldagai nagusiak identifikatzea.
Teoria ikasgelan behatutako errealitatearekin uztartzea.

Practicum I — Amaierako txostenaren egitura

Oharra: txostenean aipatutako pertsona guztiak gezurrezko izenekin edo inizialekin soilik aipatuko dira. Ikusi 8. atala, datuen babesari buruzko politika osorik ikusteko.

1.	Azala: ikaslearen izena eta identifikazioa, ikasturtea, titulazioa, ikastegia, helbidea, ikastetxeko eta unibertsitateko tutoreen izenak.
2.	Aurkibidea.
3.	Sarrera: praktikak testuinguruan kokatu, irakurleak dokumentua errazago uler dezan. <i>(1 orri inguru)</i>
4.	Eskola errealitatearen analisi deskriptiboa: deskribatu ikastetxearen ingurunea, ezaugarri nagusiak, hezkuntza eredua eta ikasgelako testuingurua. <i>(2-3 orri inguru)</i>
5.	Analisi konparatiboa: egin gogoeta euskal hezkuntza sistemaren eta zure jatorrizko herrialdekoaren arteko antzekotasunei eta desberdintasunei buruz. <i>(2 orri inguru)</i>
6.	Gogoeta pertsonala: Zer ikasi duzu? Zer egin zaizu deigarria? Zer eramango duzu zurekin zure etorkizuneko irakaskuntza ibilbidera? <i>(1-2 orri inguru)</i>
7.	Bibliografia: aipatutako iturri guztiek APA formatuari jarraitu behar diote.

Praktikak amaitu ondoren

Behin txostena entregatuta, gogobetetze inkesta bat bete beharko duzu.

PRACTICUM II | 12 ECTS

Helburua

Ikastetxearen eta ikasgelaren ezagutza sakontzea behaketa egituratuaren eta gogoeta kritikoaren bitartez.

Zer egingo duzu Practicum II-an?

- Ikastetxeari eta ikastetxearen ezaugarriei buruzko analisi sakona egin.
- Behaketa eta gogoeta egituratuaren 3 eta 6 fitxa artean bete (ikusi 1. eranskina — Behaketa eta gogoeta fitxa).
- Euskal hezkuntzaren testuingurua alderatu zure jatorrizko herrialdekoarekin.
- Amaierako txosten bat idatzi ondoren adierazitako egiturari jarraikiz.

Gaitasun espezifikoak

Garatu beharreko gaitasunak
Ikastetxearen eta hezkuntza testuinguruaren azterketa sakona egitea.
Behaketa egituratuko eta gogoetako trebetasunak garatzea.
Behaketak ikasketetako ezagutza teorikoekin uztartzea.
Euskal hezkuntza sistema alderatzea zure jatorrizko herrialdekoarekin.
Idatzizko komunikazioa eta gogoeta akademikoa lantzea.

Practicum II — Amaierako txostenaren egitura

Oharra: txostenean aipatutako pertsona guztiak gezurrezko izenekin edo inizialekin soilik aipatuko dira. Ikusi 8. atala, datuen babesari buruzko politika osorik ikusteko.

1.	Azala: ikaslearen izena eta identifikazioa, ikasturtea, titulazioa, ikastegia, helbidea, ikastetxeko eta unibertsitateko tutoreen izenak.
2.	Aurkibidea.
3.	Sarrera: praktikak testuinguruan kokatu, irakurleak dokumentua errazago uler dezan. (1 orri inguru)
4.	Eskola errealitatearen analisi deskriptiboa: ingurunea, ikastetxe mota eta ikasgelaren ezaugarriak. (2-3 orri inguru)
5.	Oharrak (3-6): behaketa eta gogoeta fitxak osatuta erantsi (1. eranskina) eta bakoitzari buruzko analisi kritikoa gehitu. (4-6 orri inguru)
6.	Analisi konparatiboa: egin gogoeta euskal hezkuntza sistemaren eta zure jatorrizko herrialdekoaren arteko antzekotasunei eta desberdintasunei buruz. (2 orri inguru)
7.	Gogoeta pertsonala: Zer ikasi duzu? Zer izan da erronka zuretzat? Zer eramango duzu zurekin zure etorkizuneko ibilbide profesionalera? (1-2 orri inguru)
8.	Bibliografia: aipatutako iturri guztiek APA formatuari jarraitu behar diote.

Praktikak amaitu ondoren

Behin txostena entregatuta, gogobetetze inkesta bat bete beharko duzu.

PRACTICUM III | 18 ECTS

Helburua

Irakasleen ikasgelako esku hartzeak diseinatzea, txertatzea eta ebaluatzea. Irakaskuntzako gaitasun praktikoak garatzea.

Zer egingo duzu Practicum III-an?

- Ikastetxeari eta ikastetxearen ezaugarriei buruzko analisi sakona egin.
- Behaketa eta gogoeta egituratuaren 3 eta 6 fitxa artean bete (ikusi 1. eranskina).
- Gutxienez irakaskuntzako 3 esku hartze planifikatu eta gauzatu ikasgelan (ikusi 2. eranskina — Esku hartzearen erregistro fitxa).
- Euskal hezkuntzaren testuingurua alderatu zure jatorrizko herrialdekoarekin.
- Amaierako txosten bat idatzi ondoren adierazitako egiturari jarraikiz.

Gaitasun espezifikoak

Garatu beharreko gaitasunak
Irakasleen ikasgelako esku hartzeak planifikatzea, txertatzea eta ebaluatzea.
Irakaskuntzako gaitasun profesionalak eta autonomia garatzea.
Graduko ikaskuntzak benetako hezkuntza ingurune batean aplikatzea.
Gogoeta kritikoa egitea irakaskuntzari eta hazkunde profesionalari buruz.
Eskola komunitatearekin harreman profesionala eta lankidetzazko harremana izatea.

Practicum III — Amaierako txostenaren egitura

Oharra: txostenean aipatutako pertsona guztiak gezurrezko izenekin edo inzialekin soilik aipatuko dira. Ikusi 8. atala, datuen babesari buruzko politika osorik ikusteko.

1.	Azala: ikaslearen izena eta identifikazioa, ikasturtea, titulazioa, ikastegia, helbidea, ikastetxeko eta unibertsitateko tutoreen izenak.
2.	Aurkibidea.
3.	Sarrera: praktikak testuinguruan kokatu, irakurleak dokumentua errazago uler dezan. <i>(1 orri inguru)</i>
4.	Eskola errealitatearen analisi deskriptiboa: ingurunea, ikastetxe mota eta ikasgelaren ezaugarriak. <i>(2-3 orri inguru)</i>
5.	Oharrak (3-6): behaketa eta gogoeta fitxak osatuta erantsi (1. eranskina) eta bakoitzari buruzko analisi kritikoa gehitu. <i>(4-6 orri inguru)</i>
6.	Irakaskuntzako esku hartzeak (gutxienez 3): esku hartzeen erregistro fitxak osatuta erantsi (2. eranskina), bakoitzaren planifikazioa, txertaketa eta autoebaluazioa jasota. <i>(6-9 orri inguru)</i>
7.	Analisi konparatiboa: egin gogoeta euskal hezkuntza sistemaren eta zure jatorrizko herrialdekoaren arteko antzekotasunei eta desberdintasunei buruz. <i>(2 orri inguru)</i>
8.	Gogoeta pertsonala: Zer ikasi duzu? Zer izan da erronka zuretzat? Zer eramango duzu zurekin zure etorkizuneko ibilbide profesionalera? <i>(1-2 orri inguru)</i>
9.	Bibliografia: aipatutako iturri guztiek APA formatuari jarraitu behar diote.

Praktikak amaitu ondoren

Behin txostena entregatuta, gogobetetze inkesta bat bete beharko duzu.

ERANSKINAK

Ikasleentzako eta tutoreentzako dokumentu lagungarriak eta txantiloiak

ERANSKINA	Dokumentua
1. eranskina	Behaketa eta gogoeta fitxa (Practicum II eta III)
2. eranskina	Irakaskuntzako esku hartzearen erregistro fitxa (Practicum III)
A eranskina	Ikastetxeko tutorearen ebaluazio errubrika
B eranskina	Unibertsitateko tutorearen txostenaren ebaluazio errubrika

1. ERANSKINA — BEHAKETA ETA GOGOETA FITXA

Fitxa bat bete behaketa bakoitzeko. Gezurrezko izenak edo inizialak erabili aipaturako pertsona guztientzat. Amaierako txostenari erantsi osaturako fitxa guztiak.

Ikaslearen izena:			
Behaketa zk.:		Titulazioa:	
Gela / taldea:		Urtea:	
Behatutako alderdia:			
Tokia:			
LABURPEN DESKRIBATZAILEA — Zer behatu duzu? (deskribatu modu objektiboan, interpretaziorik gabe. Adibidez: Irakaskuntzako zer estrategia ikusi dituzu gehiagotan eta, zure ustez, zer ikaskuntza teoria islatzen dute? Nola lagundu du irakasleak ikaslearen ikaskuntzan? Nola landu dira desberdintzapena eta inklusioa ikasgelan? Eman adibide zehatzak.)			
HASIERAKO GALDERAK ETA GOGOETAK — Zer izan da zuretzat deigarria? Zer ez duzu ulertu? Zeri buruz gustatuko litzaizuke gehiago jakitea? Zer neurritan egiten dute bat behatutako jardunbideek egungo curriculum esparruekin (adib. gaitasunetan oinarritutako hezkuntza)?			
ANALISIA — Nola deskribatuko zenituzke ikasgelako interakzio ereduak (irakaslea-ikaslea, ikaslea-ikaslea)? Zer neurritan sustatu ditu irakasleak partaidetza aktiboa eta komunikazio esanguratsua? Nola kudeatu ditu ikasgelako dinamika eta ikasleen portaera? Erlazionatu zure analisia graduan landutako printzipio teorikoekin (gehitu erreferentzia bibliografikoak).			
GOGOETA PERTSONALA — Nola sentitu zara behatutakoaren aurrean? Zer egingo zenuke modu desberdin batean? Zer lotura du horrek zure garapenarekin etorkizuneko irakasle gisa?			

KONPARAZIOZKO OHARRA — Hau zertan da desberdin zure jatorrizko herrialdeko hezkuntza sistemaz ezagutzen duzunik?

2. ERANSKINA — IRAKASKUNTZAKO ESKU HARTZEAREN ERREGISTRO FITXA

Fitxa bat bete irakaskuntzako esku hartze bakoitzeko. Gezurrezko izenak edo inizialak erabili aipatutako pertsona guztientzat. Ikastetxeko tutorearen sinadura bildu fitxa bakoitzaren amaieran.

Ikaslearen izena:	
Esku hartze zk.:	
Esku hartzearen izena:	
Gaia / Arloa:	
Gela / Taldea / Urtea:	
Data(k):	
Saio kopurua:	

PLANGINTZA — Helburuak, edukiak, metodologia, jarduera sekuentzia (tenporizazioarekin), materialak eta tresnak, irizpideak eta ebaluazio errubrikak.

INPLEMENTAZIOA — Nola joan zen saioa? Zerk funtzionatu zuen ondo? Zerk ez zuen funtzionatu? Nola erantzun zuten ikasleek? Saioa osorik egin al zen? Zer feedback eman zizun ikastetxeko tutoreak?

AUTOEBALUAZIOA — Egin gogoeta zintzotasunez. Zein dira zure indarguneak esku hartze honetan? Zer aldatuko zenuke? Zer zailtasun topatu dituzu? Zer hobetuko duzu hurrengo aldian? Nola egokitu duzu zure irakaskuntza jarduera? Esku hartze honek baieztatu egiten ditu edo zalantzan jartzen ditu graduan ikasitako printzipio teorikoak? Irakaskuntzari eta ikaskuntzari buruzko zer suposizio birplanteatu dituzu? Nola ahalbidetu da feedbacka eta zer neurritan izan da eraginkorra ikaskuntzari laguntzeko? Zer ikasi duzu zure buruari buruz irakasle gisa? Zer alorrek eskatzen dute garapen gehiago eta nola pentsatzen duzu lantzea?

Ikastetxeko tutorearen sinadura eta oniritzia:

Tutoreak sinatzen ez badu, arrazoia azalduko du hemen:

A ERANSKINA — IKASTETXEKO TUTOREAREN EBALUAZIO ERRUBRIKA

Ikastetxeko tutorearen ebaluazio errubrika dokumentu independente gisa aurkezten da (Practicum maila bakoitzeko bana). Erabili ikaslearen Practicum mailari dagokion errubrika:

- Practicum I (200 ordu) — Ikastetxeko tutorearen errubrika PI
- Practicum II (275 ordu) — Ikastetxeko tutorearen errubrika PII
- Practicum III (420 ordu) — Ikastetxeko tutorearen errubrika PIII

Errubrika osatuta bidali behar zaio unibertsitateko tutoreari, praktikak amaitzen direnetik astebeteko epean. Errubrika ikaslearen azken kalifikazioaren % 50 da.

Ikastetxeko tutoreentzako oharra

Erabili gezurrezko izenak edo inizialak ikasle edo egoera zehatzei erreferentzia egitean idatzizko iruzkinetan. Espainiako datuen babesari buruzko legediaren arabera legezkotasuna da.

B ERANSKINA — UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN TXOSTENAREN EBALUAZIO ERRUBRIKA

Unibertsitateko tutoreak errubrika hau erabiltzen du ikaslearen amaierako txostena ebaluatzeko. Errubrika azken kalifikazioaren % 50 da. Dokumentu independente gisa aurkezten da errubrika.